

Erronka gainditu dutela diote Kilometroen antolatzaileek

Iruran ikastolen alde batutako jendetza handiarekin aski pozik, bildutako guztien jarrera ona txalotu dute

Ainara Arratibel Donostia

Biharamun gozoa izan zuten atzo Irurako (Gipuzkoa) Ikastolako kideek. Garbiketa lanak egitearekin batera, zorion mezuak jaso eta jaso aritu ziren egun osoan. Eguraldia lagun, bezperan herrian egindako Kilometroak jai egun bete izan zen. «Eguna oso ondo joan zen, eta uste dugu gainditu dugula Irura bezalako herri txiki batentzat halako jai bat antolatzeak dakarren erronka», azaldu du Joxe Mendizabal antolakuntzako kideak.

Datozen egunetan aterako dituzte jasotako diruaren eta Irurara bildutako jendearen inguruko

datuak. Baina milaka izan ziren euskaltzaleak. Horren adibide da eguerdian Anoeta eta Irura arteko zubia zabaldu egin behar izan zutela. Artean jendea iristen ari zen Anoetako Renfeko geltokira. Prestatu zituzten jantokietan 2.000 lagun inguruk bazkaldu zuten, eta hainbat gunetan ia bukatu ziren ogitaratekoak.

Mendizabalek eskertu nahi izan du garraio publikoa erabiltzeko egin zuten deiari jendeak emandako erantzuna. «Horrek asko erraztu zuen gure lana». Bizikletentzako aparkalekua ere bete egin zen.

Bizikletentzako aparkalekuekin batera, edoskitze nahiz *blootooth* guneak izan ziren aurtengo jaiaren berritasunak, eta horietara ere etengabea izan zen jendearen joan-etorria.

Antolakuntzako kideekin batera ikastolako haurrak ere «oso pozik» daudela nabarmendu du Mendizabalek. «Haiantzat gauza



Goizean goizetik aritu zen jendea ibilbidea egiten. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

handia izan da herrian halako jai bat izatea».

Zurriola ikastolari lekukoa

Irurako Ikastolaren eskutik lekukoa jaso eta gero, Donostiako Zurriola ikastola hasi da hurrengo urteko Kilometroak prestatzen. Ez da Zurriola ikastolak Kilometroak antolatzen duen lehen aldia: 1995ean ere egin zuen, Herri Ametsa ikastolarekin batera. Barandiarren lizeoarekin batu zirenetik, etengabe ari da handitzen ikastola horretako ikasle kopurua. Hori dela eta, eraikin berri bat behar dute, eta hori finantzatzeko erabiliko dute bildutako dirua.



Kontzertuetan gazte ugari batu zen. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Kilometroak
2008

eskerrik asko

Zenbaki saridunak

Auto-zozketa: 45.467

Mediterraneoan zeharreko bidaia: 00.939

eraikitzen
KmK-08 Inerdi

PREMIERIA PISER
PILATITZUAK

Herri Ametsa

Irurako
Ikastola

www.kilometroak.net